



Usurbilgo Udala



TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO URTARRILAREN 14AN
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTEN ONESPENA:

- 2013/12/20KO EZOHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2013ko abenduaren 20ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

- 2013/12/20KO EZOHIKO ETA PREMIAZKO BILKURA.

Batzarkideek, 2013ko abenduaren 20ko ezohiko eta premiazko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- CELIO ESPAÑA MODA, S.A. ENPRESARI, URBIL MERKATAL ZENTROKO B-8/9 LOKALEKO JANZKI DENDAN BERRIKUNTZAK EGITEKO OBRETAKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0288

CELIO ESPAÑA MODA, S.A. enpresak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Urbil Merkatal Zentroko B-8/9 lokalean janzki denda berrikuntzak egiteko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2013-0374

ESKATZAILEA: CELIO ESPAÑA MODA, S.A.

JARDUERA MOTA: Arropa denda

NON KOKATUA: Urbil Merkatal Zentroko B-8/9 lokala – Usurbil

Udal aparejadoreak aurkeztutako proiektua eta dokumentazioa aztertu ostean, obrak baimentzeko ALDEKO txostena eman du, bete beharreko baldintzak zehaztuz.

Aurkeztutako proiektua, Miguel Angel Mera Cuevas ingeniari teknikoak sinatzen du eta industri ingeniari teknikoen elkargoaren zigilua darama. Obrako exekuzio materialaren aurrekontua 5.669,75 €da.



Usurbilgo Udala



Lokalak 209,5 m² ditu.

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: CELIO ESPAÑA MODA, S.A. enpresari, Urbil Merkatal Zentroko B-8/9 lokaleko janzki dendan berrikuntzak egiteko obretako udal baimena ematea.

BIGARRENA: Martxan jarri nahi den jarduerak udal aparejadoreak ezarritako neurri zuzentzaileak beteko ditu:

ARAUTEGI OROKORRA

1. Eskudun diren erakunde teknikoak ezarritako baldintzak eta erabilera orokorreko berariazko arauak beteko dira, bereziki hauek:
 - Udal ordenantzak eta hirigintza arauak.
 - Laneko Segurtasun eta Higieniko Ordenantza Orokorra.
 - Behe Tentsioaren Elektrotekniko Erregelamendua.
 - Eraikinak Suteen kontrako Babesteko Baldintzei buruzko CTE-DB-SI, CTE-DB-SU. CTE-DB-SH. CTE-DB-HR, CTE-DB-HE eta Kode Teknikoko gainontzeko Eraikuntzako Oinarrizko Arauak.

ZARATAK ETA BIBRAZIOAK

2. Inguruko etxebizitzetan ez da gaindituko:
 - Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte: 40dB(A) 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (leq.60-s) neurtuta, eta 45 dB(A) gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.
 - Gaueko 10etatik goizeko 8ak arte: 30dB(A), 60 segundu jarraiko hots maila baliokidea (leq.60-s) neurtuta, eta 35 dB(A) gehieneko hots maila (Lmax) neurtuta.
 - Inguruko lokaletan 60 dB(A) ez da gaindituko.

Dena dela, gai horri buruzko udal arautegirik balego, hori ere bete egin beharko da.

3. Inguruko lokalei bibraziorik ez transmititzeko, makinaren ainguraketa bibrazioen aurkako elementu bidez egingo da.

AIREZTAPENA

4. Inguruko lokalei eragozpenik sortu gabe, gauzatuko da lokalen aireztapena.

UREN KUTXADURA EKIDITEKO HARTU BEHAR DIREN NEURRIAK



Usurbilgo Udala

5. Saneamendura isuriko diren likidoak komunekoak soilik izango dira, indarrean dauden udal ordenantzak betetzen direlarik, edo, derrigorrezkoa balitz Ur Publikoen Jabegoko Ordenantzen baldintzak eta bat etortzen den arautegia.

HONDAKIN SOLIDOAK

6. Hiri hondakin solidoak indarrean dauden udal ordenantzen arabera bilduko dira, egungo arautegi guztiak betetzen direlarik. Hondakinak erretzea debekatuta dago.
7. Inerteak bezala sailkatutako hondakinak 1994/423 dekretuaren arabera kudeatuko dira, baimendutako zabortegira botatzea onartzen delarik.

SUTE AURKAKO NEURRIAK

8. Gutxienez hurrengo elementuak jarriko dira:
 - Hauts balioanitzeko itzalgailuak 21Ako eraginkortasuna duena.
 - CO₂ko itzalgailu 34Bko eraginkortasuna duena (koadro elektriko orokorraren alboan).
9. Instalatzen diren suaren kontrako bitartekoen mantenimenduari dagokionez, 1942/1993 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Suteen kontra babesteko Instalazioen arautegia (1993-12-14ko BOE) eta 1998ko apirilaren 16ko Agindua (1998-04-28ko 101 zk. BOE) bete behar dira.
10. Kontagailu gelan Monedero Zerbitzuak etxeko kontagailua instalatuko da, gehienez 25 mm.koa. Irrati bidez irakurketa egin ahal izateko gailua eramango du. Ur hartune baimena eskatuko da.

BESTEAK

11. Proiektuan adierazita dauden zehazpenak eta neurri zuzentzaileak nahitaez beteko behar dira, goian aipatutako jarraibideekin bat ez datozenean izan ezik.

HIRUGARRENA: Obrak amaitutakoan hurrengoak aurkeztuko dira:

- Gai den teknikariak zigitatutako amaiera ziurtagiria, burutu diren instalazioak aurkeztutako proiektuarekin bat datozela, eta ezarritako neurri zuzentzaileak bete direla adieraziz.
- Elektrizitateko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Ur hartunea izan ezker, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena.
- Eusko Jaurlaritzako "SUTEEN AURKAKO BABES INSTALAZIOA ZERBITZUAN JARTZEKO DOKUMENTUA"

LAUGARRENA: Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da: obra eta Instalazioen zerga.



Usurbilgo Udala

BOSGARRENA: Obra burutzeko zoru publikoan kontainerra jarri behar izanez gero, Udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.

SEIGARRENA: Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
- Obrak lizentzi ematen den egunetik HILABETE baino lehen hasiko dira eta beste SEI HILABETEAN bukatuko dira.

ZAZPIGARRENA: Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

3.- TINTORERÍAS PEÑAS DE AIA, S.L. ENPRESAK, URBIL MERKATAL ZENTROKO B-2 LOKALEAN EZARRITAKO PRESSTO ARROPA GARBITEGIARI, TINDATEGIARI, IREKIERA BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENB.: HZ.07/2000-0475

TINTORERÍA PEÑAS DE AIA, S.L. enpresaren ordezkartzan diharduen Ana Robles Gonzalo andereak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Urbil Merkatal Zentroko B-2 lokalean ezarrutako PRESSTO arropa garbitegiaren, tindategiaren irekiera baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: 475

ESKATZAILEA: TINTORERIA PEÑAS DE AIA, S.L.

JARDUERA MOTA: PRESSTO arropa garbitegia, tindategia

NON KOKATUA: Urbil Merkatal Zentroa B-2 lokala / Usurbil

AURREKARIAK

2013ko apirilaren 23an, 1474 sarrera zenbakiarekin, jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkeztu zuen udalean, Aitzol Ceberio Aguirresarobe dekoratzaileak idatzitako jarduera proiektuarekin batera.



Usurbilgo Udala



Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 91. zenbakia, 2000ko maiatzak 16). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2000ko ekainaren 19an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 2168 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2000ko ekainaren 27an aldeko informea eman zuen.

2000ko urriaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

2000ko azaroaren 14ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, Urbil Merkatal Zentroko B-2 lokalean jazki-garbiketa eta plantxa jarduera ezartzeko udal baimena eman zion Bucher Servicios, S.L. enpresari.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, Tintorería Peñas de Aia, S.L. enpresaren ordezkartzan diharduen Ana Robles Gonzalo andereak, ezarritako jardueraren irekiera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: JARDUERA BAIMENA
JARDUERA: JANTZIAK ARAZTEKO DENDA
ESKATZAILEA: BUCHER SERVICIOS S.L. (PRESSTO – J.M. GALLEGO)
KOKALEKUA: URBIL MEKATALGUNEA B-2 (TXIKIERDI 7)
LURZORU SAILKAPENA: HIRI LURZORUA
ESP. ZENB.: HZ.07/2000-0475

AURREKARIAK

2000-05-03an Txiki Erdiko Urbil merkatalguneko B2 lokalean berrikuntza obrak egiteko eta jarduera baimentzeko eskaera egin zuen Jose Mari Gallegok, Bucher Servicios, S.L. (PRESSTO) enpresaren izenean.

2002-09-09an, eta Jose Mari Bravo Udal arkitektoak ikuskapena egin ondoren, alkateak jakinerazpena helarazi zuen bete beharreko neurri zuzentzaileak zerrendatuz.

2013-06-17an Ana Belen Robles Gonzalok idatzia aurkezten du irekiera baimenaren kopia eskatuz.

2013-09-30ean Alkateak jakinerazpena helarazten dio, neurri zuzentzaileak bete behar dituela esanez.

TXOSTENA

Ana Roblesek, Tintorería Peñas de Aia, S.L.-ren izenean, e-posta bidali du, eskatutako neurri zuzentzaileak bete dituela esanez.



Usurbilgo Udala



Jardueraren lokala, AASSetako A-108 eremuan kokatzen da, Tertiario Merkataritza erabilera onartzen delarik.

Urbil merkatalguneko B-2 lokalean ikuskapena egin da, eskatutako neurri zuzentzaileak bere diren egiaztatzeko.

Udalak eskatutako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, proposatzen dut eskatzaileari IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

2014ko urtarrilaren 4an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Tintorería Peñas de Aia, S.L. enpresak, Urbil Merkatal Zentroko B-2 lokalean ezarritako PRESSTO arropa garbitegiari, tindategiari, IREKIERA baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

4.- AIZPEA AIZPURUA ARROIO ANDREARI ZUBIETAKO ZUGASTI BASERRIA BIRGAITZEKO (ZUBIETA 23) UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2013-0397

AIZPEA AIZPURUA ARROIO andereak, Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko (Zubieta 23) udal baimena eskatu du (Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0397).

Indarrean dauden Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen arabera Zugasti baserria 2.b mailako babes erregimenean sailkatzen da. Gauzak horrela, ezer erabaki aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Ondare Historikoaren Zerbitzuari bere iritzia eskatu zitzaion. Honek 2013ko urriaren 24an helarazi zuen bere ebazpena. Hitzez hitz honela dio:

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentu honetako, Kultura Zuzendari Nagusiak ondoko EBAZPENA eman du gaurko datarekin:

2013/10/08

GAIA / Asunto: zaharberritzea
LEKUA / Emplazamiento: Zuasti baserria
HERRIA / Localidad: USURBIL
ERREGISTRO ZENBAKIA / N^o registro: 2585/2013



Usurbilgo Udala



DATA / Fecha: 2013-09-17
ESKATZAILEA / Solicitante: Usurbilgo Udala
ESPEDIENTEA / Expediente: 069/2013

Espediente honen bidez, Usurbilgo Udalak, Zuasti baserria zaharberritzeko Celia Lana arkitektoak sinaturiko gauzatze proiektua aurkeztu du, Foru Aldundiak dagokion txostena egin dezan.

Urtarrilaren 10eko 2/2012 dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun gisa sailkatu zen.

Espediente honetako babes arautegian, Zuasti baserria oinarrizko babesaren duten elementuen zerrendan aurkitzen da.

Eraikin horietan baimendutako esku hartzeak, babes maila gorenetan sartutakoez gain Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, Ondare Urbanizatu eta eraikia Birgaitzeko jarduketa Babestuei buruzkoan, jasotakoak izango dira, egonkortzea deituriko esku hartze motarako, bai eta esku hartze kontserbatzaile eta apaindurakoak eta a) motako eraberritzeak ere.

Espediente honetan Zuasti baserriaren ekialdeko etxebizitzaren zaharberritzea proposatzen da.

Proiektuaren helburu nagusiak, baserriaren ekialdeko etxebizitzaren barne distribuzioaren moldaketa, bizigarritasun baldintzak lortze aldera, eta teilatuaren zaharberritzea dira.

Proiektuaren memorian zehazten dira bertara egindako bisitan guk babes erregimena kontutan izanik ezarritako irizpideak,

- Eraikinaren bolumetria mantentzea
- Fatxada eta honen konposizio orokorra mantentzea, osotasunean konposizioa eraldatuko ez duen aldaketa txikiak egin ahal izango direlarik.
- Egurrezko portiko eta forjatuen barne egitura mantenduko da, beharrezko izango balitz, lehen solairuko zoruaren kota aldaketa baimendu ahal izango delarik.
- Teilatua aldatu ahal izango da, beti ere, egurrezko egiturarekin eta egungo bolumena mantenduz egiten bada.
- Barne distribuzioaren aldaketa baimenduko da.

Printzipioz proiektuak proposaturiko esku hartzea bat dator babes erregimenak eta aurretik aipatutako irizpideekin, hala era hurrengoa aipatzea komeniko litzateke.

- Irekitzen diren leiho berrietan, batez ere iparraldeko altxaerakoetan, leihoburuak ez dira bistan utziko, ahalik eta itxura garbiena mantenduz.
- Teilatuan proposatzen diren velux motako baoak, zenbakian murriztu beharko dira, teilatuaren itxura eta testura mantentze aldera.



Usurbilgo Udala



Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, 2012ko apirilaren 2ko 12/2012 Foru Dekretua, Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, bere 6.2.a) artikulua araberan dituen eskumenak eraniliz, Kultura zuzendari nagusi honek, honako hau,

EBATZI DU

Lehena Aldeko txostena ematea Usurbilgo Udalak, Zuasti baserria zaharberritzeko egindako eskaerari, beti ere ondorengo baldintzapean:

- Irekitzen diren leiho berrietan, batez ere iparraldeko altxaerakoetan, leihoburuak ez dira bistan utziko, ahalik eta itxura garbiena mantenduz.
- Teilatuan proposatzen diren velux motako baoak, zenbakian murriztu beharko dira, teilatuaren itxura eta testura mantentze aldera.
- Esku hartzean zehar proiektuarekiko aldaketarik suposatzen duen lanik egin beharko balitz, aurretik Foru Aldundian jakinarazi beharko da, eta bertako teknikarien onespena izan beharko da.

Bigarren.- Baimen honek ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, eta horiei buruz hartu beharreko erabakiaren edukirik ere ez du aurreiritzen.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaioke interesatuek Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein aurkez daiteke.

Jakin dezazun eta bidezko ondorioetarako igortzen dizut.

Donostia, 2013ko urriaren 8a
Idazkari teknikoa
Izptua.: Ainhoa Gainberri Txintxurreta

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiuren Azkunek, ondoko txostena eman du:

EE2013_04_35

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HAUNDIAK
ZUBIETAKO ZUGASTI BASERRIA BIRGAITZEKO PROIEKTUARI
TXOSTENA

KOKAPENA: Zugasti baserria, Zubieta 23, Usurbil
ESKAERA DATA: 2013ko irailaren 10a.
ESKATZAILEA: Aizpea Aizpurua Arroio.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2012-0337



Usurbilgo Udala

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 308.660,12 euro (PEM)

AURREKARIAK

- 2013ko irailaren 10ean Aizpea Aizpurua andereak obra baimena eskatu du Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko.
- 2013ko urriaren 24an Foru Aldundiko txostena jaso da (Udalak eskatuta).
- 2013ko azaroaren 25ean erregistroko ziurtagiriak jaso dira (Udalak eskatuta).
- 2014ko urtarrilaren 7an ingurumen udal teknikariarekin baieztatu ahal izan diren proiektuak barneratzen dituen eguzki plaken inguruko gaiak.

TXOSTENA

Aizpea Aizpurua andereak obra baimena eskatu du, Usurbilgo Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko. Horretarako aurkeztu dituenak dira, eskaera orriarekin batean, Oinarrizko eta Exekuzio Proiektua. Proiektuak barneratzen ditu: planuak, memoria, baldintza plegua, neurketak eta aurrekontua, Kalitatearen Kontrolerako Egitasmoa, Hondakinen Kudeaketarako azterlana eta Segurtasun eta Osasun Azterlana. Guztiak arkitektoak izenpetuak (Celia Lana) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiak (COAVN 2013 – 09-05).

Zugasti baserria, Usurbilgo Zubieta auzoan kokatzen da, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren arabera *Zubietako Ibarreko babeseko lurzoru ez-urbanizagarrian*. Aipatu Testu Bateraginaren Hirigintzako Ondare katalogoan hainbat babes maila ditu;

- ONDARE ARKITEKTONIKOA:

- o 1.b. Monumentu Multzoen barruan dauden ondasunak, kalifikatutako Ondasun Kulturalen Zerrendan eta Euskal Kultur Ondarearen Zerrenda Orokorrean: **Zugastiko bidea (Kalifikatua. Abiarazia), Zugasti baserriko galtzada (Kalifikatua. Abiarazia) eta Zuasti baserria (Oinarrizko babes. Abiarazia. Kalifikatua).**
- o 2.b. Lehen tasunezko interesa duten ondasun higiezinak; **Zugasti baserria.**

- II. ONDARE ARKEOLOGIKOA:

- o 3. Kategoria: Balizko eremu arkeologikoak: **Zuasti baserria.**

Orain aurkeztu den proiektuaren helburua da: *“rehabilitación de la vivienda este del caserío Zugasti, situado en la vega de Zubieta, rodeada por varias construcciones, que no serán afectadas”*. Birgaitzeak etxebizitza barruko distribuzioa berritzea eta estalki zein estalki behearen ordezkapena jasotzen ditu.

Dokumentazioa aztertu ostean, honakoa esan daiteke:



Usurbilgo Udala

- **ETXEBIZITZA KOPURUA:** Jabego erregistroaren nota sinpleak eskatu dira eta ikusi da, Zugasti baserriaren erdi bakoitzean etxebizitza bana dagoela erregistratua. Ekialdeko erdian honakoa azaltzen da: *“Consta de piso planta baja, primer piso alto y desván, ocupa doscientos cinco metros cuadrados y sus antepuertas doscientos veinte metros cuadrados, lindando casa y antepuertas por el norte y este, con el camino de servidumbre de la otra mitad de la Casería; sur, con camino mencionado de servidumbre; y oeste, con la otra mitad de la casa y sus pertenecidos.”* Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 52. artikuluari jarraituz, baserrian gehienez 2 etxebizitza onartzen dira eta beraz, ekialdeko erdian dagoen etxebizitzaren birgaitzea ontzat hartzen da. **Beti ere, ohartarazten da, ezingo direla baserri osoan bi etxebizitza baino gehiago ezarri.**
- **BABES MAILARI DAGOKION ESKUHARTZEA:** Foru Aldundiaren ALDEKO txostena jaso da, baldintzatua. **Ezinbestean bete beharko dira Foru Aldundiak ezarritako baldintzak.**
- **BIZIGARRITASUN BALDINTZEN BETETZEA:** Iparraldeko altxaeran leihoak gehitu dira eta gainontzeko altxaeretan, jatorrizkoen neurriak handitu dira. Indarrean diren Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatu bezala, bizigarritasun baldintzak justifikatu beharko dira babes mailarekin egokituz, bereziki aireztapen eta argiztapenari dagokionean (ikus Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ordenantza).
- **MATERIALEAK:** Kanpoaldeko akaberak zuriak eta kanpoaldeko zureria egurrezkoa izango dira.
- **EKIALDEKO ALTXAERARI ATXIKITA ERANSKINA:** Jabego erregistroan ez da haren aztarnarik, ezta udal artxiboan ere. Jaso ahal izan diren datuen arabera eta besterik ezean, esan daiteke, ez dela udal baimenarekin egikaritu. Bestalde, Josu Tellabideren “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak” liburuko argazkietan ikusi ahal izan denez, 1984an jada bazuen egikaritua eranskina ekialdeko altxaeran eta 2002ko datarekin eranskinaren teila gorriko estalkiaren ordez terraza laua egikaritua zegoen.

Proiektuan bertan esaten da, baserriaren eranskinak ez direla ikutzen (“situado en la vega de Zubieta, rodeada por varias construcciones que no serán afectadas”) eta aldiz, planuetan bertan ikus daitekeen bezala, egun garaje erabilera duen ekialdeko altxaeran bertan, baserriaren sarrera eta instalazio gela ezartzea proposatzen da behe solairuan, estalki lauan terraza mantenduz.



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusita, **2/2006 Lurzoruaren Legeak bere 101.3.b. artikuluan ezartzen duen plangintzaren kontrako egoeran aurkituko litzateke egun ekialdeko altxaeran kokatzen den eranskina. Hori dela-eta, haren mantentze obrak onargarriak izan arren, ezingo da bertan etxebizitza erabilerarik eman eta ezta haren handitze edota aldaketarik egin.**

- EGUZKI PLAKAK: 12. planuan azaltzen den bezala, eguzki plakak baserriaren kanpo lursailean jarri nahi dira, baserritik 15 metrotako distantziara. **Usurbilgo Arau Subsidiarioek ez dute eguzki plaken inguruko erregulaziorik barneratzen, ezta hauen kokapena lursailean, eraikin nagusitik kanpo baimentzen. Halere, Zugasti baserria Usurbilgo Arau Subsidiarioen arabera babestua dagoela ikusirik, behean izenpetzen duen teknikariak, eguzki plaka jarri behar izatekotan, egokiagoa ikusten du lursailean ezartzean eraikin babestuaren estalki edota altxaera gainean jarri ordez.**

ONDORIOAK

Zugasti baserria birgaitzeko Exekuzio Proiektua ONTZAT hartzeko, beti ere honako baldintzak bete eta dokumentazio gehigarria aurkeztu beharko da:

- Eraberritze obralanez ezingo dute inolaz ere baserriak egungo egoeran duen bolumena, altuerak eta azalera eraikia, nahiz jatorrizko konposizioa eraldatu.
- Ezinbestean, Foru Aldundiak 2013ko urriaren 8ko txostenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
- **HAMABOST EGUNEKO EPEAN** eta obrak hasi aurretik ezinbestean, honakoa aurkeztu beharko da:
 - o Indarrean diren Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatu bezala, bizigarritasun baldintzak justifikatu beharko dira babes mailarekin egokituz, bereziki aireztapen eta argiztapenari dagokionean (ikus Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ordenantza).
 - o Eguzki plaken kokapen planua, baserriarekiko, beste eraikinekiko eta bide publikoekiko distantziak akotatuz. Beste hainbat baldintzen inguruko informazio zehatza ere aurkeztu beharko da; okupatzen duten azalera, eguzki plaka kopurua, instalazioaren konfigurazioa, e.a.
- Kanpoaldeko akaberak zuriak eta kanpoaldeko zureria egurrezkoa izango dira.
- **Ekialdeko eranskina 2/2006 Lurzoruaren Legeak 101.3.b. artikuluan ezartzen duen plangintzaren**



Usurbilgo Udala



kontrako egoeran aurkituko litzateke jaso ahal izan diren datuen arabera. Hori dela-eta, haren mantentze obrak onargarriak dira. Ohartarazten da, ezingo dela bertan etxebizitza erabilerarik eman eta ezta haren handitze edota aldaketarik ere.

- Edonola, Usurbil Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du bai proiektuak eta baita obren egikaritzak ere. Exekuzio Proiektuak txosten honetan seinalatzen ez den hutsunerik/akatsik balu indarrean den araudia betetzen ez duena, obren egikaritzan zuzendu beharko da eta horren erantzule izango da Obra Zuzendaritza (LOE).
- Ohartarazten da ezin direla baserri osoan bi etxebizitza baino gehiago ezarri.

Hau da esan behar nuena.

Usurbilen, 2013ko azaroaren 28a
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Gauzak horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena eta udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: AIZPEA AIZPURUA ARROIO andereari Zubietako Zugasti baserria birgaitzeko (Zubieta 23) udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

1. Celia Lana Ranz arkitektoak 2013ko uztailean (EHAE0 2013-09-05) idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak emandako ebazpenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
2. Eraberritze obralanek ezingo dute inolaz ere baserriak egungo egoeran duen bolumena, altuerak eta azalera eraikia, nahiz jatorrizko konposizioa eraldatu.
3. Baserri osoan bi etxebizitza baino gehiago ezin direla ezarri ohartarazten da.
4. Ezinbestean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2013ko urriaren 8an emandako ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.
5. Obrak hasi aurretik, ezinbestean, **HAMABOST EGUNEKO EPEAN** ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:



Usurbilgo Udala

- Indarrean diren Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bateraginaren 55. artikuluan finkatu bezala, bizigarritasun baldintzak justifikatu beharko dira babes mailarekin egokituz, bereziki aireztapen eta argiztapenari dagokionean (ikus Babes Ofizialeko Etxebizitzen Ordenantza).
 - Eguzki plaken kokapen planua, baserriarekiko, beste eraikinekiko eta bide publikoekiko distantziak akotatuz. Beste hainbat baldintzen inguruko informazio zehatza ere aurkeztu beharko da; okupatzen duten azalera, eguzki plaka kopurua, instalazioaren konfigurazioa, e.a.
6. Kanpoaldeko akaberak zuriak eta kanpoaldeko zureria egurrezkoa izango dira.
 7. Ekialdeko eranskina 2/2006 Lurzoruaren Legeak 101.3.b. artikuluan ezartzen duen plangintzaren kontrako egoeran aurkituko litzateke jaso ahal izan diren datuen arabera. Hori dela-eta, haren mantentze obrak onargarriak dira. Ohartarazten da, ezingo dela bertan etxebizitza erabilerarik eman eta ezta haren handitze edota aldaketarik ere.
 8. Edonola, Usurbil Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko du bai proiektuak eta baita obraren egikaritzak ere. Exekuzio Proiektuak txosten honetan seinatzen ez den hutsunerik/akatsik balu indarrean den araudia betetzen ez duena, obraren egikaritzan zuzendu beharko da eta horren erantzule izango da Obra Zuzendaritza (LOE).
 9. Obrak hasi aurretik **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da.
 10. OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: urte 1.
 11. Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - b) Obraren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.



Usurbilgo Udala



- c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.

- e) Obralanean Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- f) Lurralde kontribuzioaren alta.

- g) Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

12. Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

5.- HERRIKO HAINBAT ELKARTERI 2013KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2.ZATIA ORDAINTZEA.

Espedienteak: Noaia! Kultur Eklarte (KE.01/2013-0061)
Euskal Kantu Taldea (KE.01/2013-0045)
Usurbilgo Dantza Taldea (KE.01/2013-0058)

Ikusirik

2013eko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko hogeitun laneguneko epea emanez.



Usurbilgo Udala

2013eko maiatzak 31ko Tokiko Gobernu Batzarrean diru-laguntzaren lehenengo zatia ordaintzeko erabakia hartu zen. Gainerako %25a, diru-laguntza justifikatu ondoren ordaindu behar zen.

Orain, Noaua! Kultur Elkarteak, Euskal Kantu taldeak, eta Usurbilgo dantza taldeak hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

Noaua! Kultur Elkartea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
13.-Kulturaldia	4.923,70 €	3.692,77 €	Gastuak:3.636,82 € Sarrerak: 636,00 € 8,9,10,11 eta 12 Ekintzetako soberakina:947,23 € Guztira gastuak: 3.948,05 € 2. Zatia 3.948,05-3.692,77	255,28
14.- XXI. Mendeko Euskaldunak: Nola aldatu diren gauzak, kamarada! Hitzaldia	561,32 €	420,99 €	Gastuak: 484,26€ 2. Zatia: 484,26-420,99	63,27
Guztira				318,55 €

Euskal Kantu Taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
1.- Euskal Kantu entseguak	668,18 €	501,14 €	Gastuak: 914,64€ Sarrerak: 115,00 € Guztira gastuak: 799,64 €	167,04
2.- Kantujirak	1.554,55 €	1.165,91 €	Gastuak: 1.600,00€	388,64
3.- Ekimenak	777,27 €	582,95 €	Gastuak: 1.340,00€ Sarrerak: 445,00€ Guztira Gastuak: 895,00€	194,32
Guztira				750,00 €

Usurbilgo Dantza Taldea

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
4 eta 5 Euskal dantzen ikastaroa eta Dantza Eguna	1.610,00 €	1.207,50 €	Gastuak:4.861,31 € Sarrerak:2.150,00 € Guztira gastuak: 2.711,31 €	402,50
Guztira				402,50 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2013ean kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013/02/06).

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
Noaua! Kultur Elkarte	13-14	318,55 €
Euskal Kantu Taldea	1-2-3	750,00 €
Usurbilgo Dantza Taldea	4-5	402,50 €

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4000.481.451.10.03.2013 (A/ 342-2013)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio, ordainketa egiteko orria erantsiz.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.